

### **KRISTAU BAKARTI BATEN ARGUMENTUAK**

1.- Nola naizen ni komunista.- Egiaren bilatzean nire hegala logika formalean daude eta logika dialektikoan daude nire falaziazko bide okerrak, beheko errekan amaitu direnak. Eta logika formalaren bitartez, ondorio erlazio egiazkoek lagundurik, kosmos material honetatik harutzago joana naiz, eta irudikatua dut Zeruetako Erresuma eta bertan Kredoan afirmatzen den santuen komunioa, eta hor dago nire komunismoaren aldeko jarrera. Nolabait nik fantasiatzko ilusio mundanalak bihurtu ditut nire erlijioaren moldeetara, Avilako Teresak Juan Gurutzekoarekin egiten zuen moduan, eta orain maite eta maite ez ditudanen arimak salbatzea dut amets nagusia eta prinzipala. Hor ikusiko baikaitezke agian.

2.- Komunioan praktikatzen omen da.- Hori egia izango da, baina badaiteke kristau bat bakarrik geratzea, desolazioan, besteek toma egiten diotelako, eta orduan halako kristauak nola antolatuko du bere bizitza Jesusi jarraituz beti?. Esperantzeta mundanalak alde batera beheko errekarera joanak direlarik, hau da nik bilatzen dudana, nire egunerokoa nola antolatu arztainek eta beste ardiek eta zakurrek toma egiten didatelarik oro har. Grazian ez banengo desorientatuta nengoke zeharo. (Momentu txar batean idatzia da testu hau, izan ere erregelak salbuespenak eduki ditzake, kontraejenploren bat adibidez, eta orduan nire unibertsal bihurtzea falaziazkoa da, eta referitzen naiz Kamino Neokatekumenaleko emakume edadetu bati).

3.- Euskal konfliktoa ezin ukatu da.- Ni ez nintzen oso konszientea eta edozein estudianteren eboluzio intelektualean

murgilduta nengoen estudioekin batera, drogadiktoa banintzen ere, baina paranoia hark jo ninduenean konfliktoaren errailetan nonbait han sartu nintzen, birtualki, eta pensionista atera nintzen trauma hartatik, deskubritua nuela terapia bat guttiz ezezaguna zitzaidana ordura arte, logoterapia, Viktor E. Frankl mediku judu batek teorizatua.

4.- Esklabismoa kultura orientalean.- Nik galdera hau egin-go nieke boterea dutenei neurri hori hartzeko: zor bat ezin pagatu daitekeenean (hipoteka batena izan daiteke) badaiteke norberaren burua saltzea esklabo zorra pagatu artean?. Aristotelesendako jarduera normala da hori, baina nik filosofoari eransten diot ezen hori normala dela kultura orientalean, eta Frantziako iraultzak, fama merezia duena, eta besteek, ez gaituzte kultura hortatik atera (nik dakidala inork ez du planteatu problema termino horietan orain arte). Eta lanak izango dira segurutik kultura hortatik ateratzekoak, zerbait justuago baten alde, erdiko neurri baten bila hor nonbait. Eta alferkeriak behintzat ez dakar gauza onik, hainbatetan nire kasua adibide.

5.- Nire eboluzio intelektualaz zerbait.- Nik ez daukat ia intelijentzia emozionalik, horregatik nago seguridade sozial indartsu eta efiziente baten alde, nire modukoak seguridade minimo batekin bizi ahal ditezentzat (Espiritu Santuak fortalezarekin problema larria ipini dit, eta ez badit laguntzen problema hori idealki nahiko nukeen moduan konpondu gabe hilko naiz, teoriant asko aurreratua nagoen arren. Eta horregatik nire idaztankera lehorra da eta sikua, mizkina, nik idealki nahi nukeenaren azpitik dago). Gerraren fenomenoa estudiatu nuen hasi nuelarik idazten, eta fenomeno unibertsal ezin izan zitekeela demostratu nuen. Gero ikasi dut kulturarik gaiztoenean oso usua dela gerra unibertsal bihurtzea, baina izan diren kulturen arragoan kultura orientala ez da unibertsala, beste kultura bat da, ezaugarri nabari-nabari batekin, dela gaiztoena. Gaizkiaren kausa orokorra baldin bada pribazioa errez konprenitzen ahal da duen kalifikazio etiko hori, bere historia

osoan konprobatu egiten dena. Azken batean ezagutza unibertsala ezin lortuzkoa baldin bada, esperientzia material orotik gain dagoelako, ezin unibertsal bihurtu daiteke ezer kosmos material honetakoa dena (filosofiaren logikatik diot hori), baina falazia horretan asko dira kultura orientalean eroriak, eta gu, kultura horren barruan jaioak, falazia hortatik askatu garenok, deitzen diogu hiriko gure auzoari Ilunbeazpi, ilunpeetan bizi direlako eroriak, eta gehienak dira. Baina hor ez dira amaitu nire aberiguazioak, baita teorizatzen dut honela jarraituz: ezagutza unibertsala pribaziogabea denez ezagutza santua da, baina lortu ezina da filosofia naturaletik, soilik filosofia sobrenaturalistak erakusten digu ez dela ilusio huts bat eta bai errealidade inteligible bat, inbisiblea den arren.

6.- Ilunbe azpiko area romantikoa.- Lehengunean lagun batekin egon nintzen eta harek komentatzen zuen, nire galderari erantzunez, Kantabriako Perlak bazuela erakusten eraikuntzen fatxadetan batez ere halako noblezasun bat, eta nik pentsatuen nire artean bertan ere teorizatu den sozialismoa aristokratiakoa dela, beti ere hoberenaren, onenaren eta ederrenaren alde.

7.- Hobbes Ilunbe azpian.- “Homo homini lupus” esango zuen hemen bizi balitz?. Harek idatzi zuen gehiago ikasten zela jendeari begiratzuz zuzenean ezen ez liburuetan. Eta nik galdetu izan diot sarritan neure buruari: halakoa zen haren garai-ko Londres hiria?. Ala esageratu zuen?. Nik ez dut esaten jada gizona berez ona dela, berez dena da ona Bibliaren arabera, baina gizona gaiztoa dela ezin ukatu dut, behintzat nire eskarmentutik ikusia. Hori unibertsala dela dakit Jesusek esan zuelako behin eta apostoluei gainera. Lehengo egunean tabernan batek erran zidan txakurra eduki beharko nukeela, eta nik erantzun nion gizonak gaiztoak direla baina nik txakurrak baino gehiago nahi ditut tratua, berba egiteko, eta hola, gizonak. Ez naiz zinikoa.

8.- Zehaztapenak filosofian.- Tailerreko maisu baten semea naiz; ezin dut erabili haren hizkera eta zehaztapenak baino besterik; horregatik egiaren bila ari naiz letra artean.

9.- Teoria etiko politikoa.- Nik idatzia lagata daukat ezen teoria politiko hoberenak bilatzen duena dela perfekzio etikoa, baina hori, mundu honetan, ezinezkoa da, zeren perfekzio etikoa soilik da posible ezagutza unibertsala duen batendako, eta hori santutasuna da, bakarrik beste munduan, Paradisuan, gertatzen dena. Mundu honetan bitartean saiatzea hobetzeko panorama politikoa obligazioa ere bada, nahiz eta ezinezkoa den helburu maximoa lortzea. Hori jakinda ere (beti mundu honetan izango garela bekatarriak), sekula ez da ahaztu behar obligazio etikoa dela hobetzen saiatzea, konfesioan esaten den moduan, enmendatzeko propositua edukitzea, bekaturik egin nahi ez bada konfesatzen den arlo horretan. Hori da nire ondorioa behintzat.

10.- Diferenteak gara, baina ez hainbeste.- Beheko tabernan egon naiz lagun batekin eta hori esan diot, eta konforme zegeon nirekin. Eta pentsatu dut haxe: badaude halako bi joera gizartean, bata da diferentziak amentatzekoa, batez ere ekonomikoak, eta bestea diferentziak gutxitzekoa, lehenak izan daitezke, terminologia dialektikoa erabiliz, eskuinekoak, eskumakoak, eta bigarren joerakoak ezkerrekoak. Eta filosofoak bazuen idatzita laga nola klase media nagusi baten iraultzak ezinezkoak ere zirela, eta horretan bat egon izan dira filosofoarekin Carrillo eta Fraga. Hierakiak badaude, baina ez ditza-gun puztu eta inmobilizatu naturaren kontra, ezuste desagradablerik eduki ez ditzagun.

11.- Bakardade sentimenduaz.- Bakardade sentimendua oso patologikoa da, zeren unibertsal bihurtzen baita norberaren bakardadea, eta hori, psikologoen eta medikuen ere badakite, hiltzea da, eta bakardade sentimendua duena bizirik dago, eta psikologoen bakardade hori ez dela absolutua demostratu egi-

ten diote gaixoari; nola? kontraejenploak bilatuz. Nire kasuan asko daude, emaztea, lagun batzuk baditudanak hemen Donostian, Soraluzeko kuadrillakoak, beheko tabernan kasu egiten didatenak, ezagutzen ez ditudan Markinako karmelitak publikatzen dizkidatenak nire izkribu batzuetan maldan behekoak, eta lagun batzuk borondate onekoak saludatu egiten didatenak nire pensionista “ikertzaile” bizitza pobre honetan...

12.- Mirarien a prioritasunaz.- A prioritasunean Kantekin deskubritua dugu ezagutza unibertsala, nonbait, sokratismora itzuliz, kosmos material honen definizio unibertsala, kosmos material honen esentzia ezagutzen da a prioritasunezko fenomenoetan (miriarietan batez ere), eta beraz, baita mundu inorganikoa eta baita mundu organikoa ere ezagutuak dira osoro, perfektuki, eta edozein objektu (inorganikoa ala organikoa) materialaren definizioa unibertsala da, eta hor esentzia ezagutzen dugu, guztiaren izatea, izaera. Baina guk ez, hau teorizazio hutsa da misterio batez, baina misterio hortatik, Jainkoaren misterioa deitua, ezagutuak gara guk geure burua ezagutzen dugun baino hamaika bider hobeto, perfektuki, eta horregatik esaten da Jainkoak guk baino hobeto ezagutzen duela zer behar dugun, guk eskatu baino aurretik, a priori.

13.- Epikureismo itsua.- Zertan nengoen nire artean galdetu didate eta nik: dena igarotzen da, deus ez da geratzen, arrapostu dut eta batek erran dit plazerra bilatu behar dela horiek ahaztuta, epikureismoa hitz batean. Nik ez dut deus erantzun baina gero pentsatu dut plazerra bilatzea beste barik, bururik gabe, triskantzara doan bidea dela: fama gaiztoa hartzen du batek eta zure ibileren jakinean dagozen jendeek toma egiten dizute. Epikurok ere bazuen teorizatu nola plazer batek ondorio mingarriak bazekartzan orduan hobeto dela plazer hori atzeratzea, eta hori buruakin jokatzea da, eta holaxe nik hamaika plazer atzeratzen ditut nire gaur egungo bizitzan. Eta zoriona bilatzen dut nik ere.

14.- Mirariek Paradisua iradoki.- Jainkoaren esistentziaren problema perspektiba diferenteetatik ikertu izan da, baita mirarien estudiantik ere. Baina oker eginak daude estudio horiek. Zeren erraten baita, adibidez, mirariek orden naturala bortxatu egiten dutela. Eta hori ez da egia, behintzat nire estudioetatik ikusia, eta ikasia. Mirari batek orden naturala, lege naturala, guk ezagutzen dugun moduan, zientzia humanoak ezagutzen duen moduan kosmos honetan, orden naturala osatu egiten du perfekzioraino, eta nik Jesus irudikatu egiten dut Paradisutik etorria, Hango ordena erakusten diguna Bere mirariekin. Eta lege naturala osatua da bere forma perfektoraino, zientzia humanoa, hain defizientea dena, jakina den moduan. Eta Jesusekin ikasten dugu zientzia humanoak irudikatzen duen orden ideal hori (forma grekeraz) Paradisuan dagoela, Edo Pilatosi erran zion moduan beste Kosmos batean dago Bere Erresuma. Eta Hor bai, Hor betetzen dira profeten iragarpenak.

15.- Akto garbia.- Gure parterik nobleena hartzen badugu adibidea jartzeko erraten ahal dugu teorizatzen ahal dela intelektu bat ez duena bere ezagutzan ezer potentzian, dena aktoa baita eta hori da akto garbia bezala ezaguna. Ezagutza pribazio gabea da, beraz, eta horregatik ezagutza hori santua da. Eta aristotelismoan akto garbia dibinidadea da. Eta guk, kantismoa eskolatikara hurreratuz, ezagutza unibertsala bezala ere ezagutzen dugu hori. Arrazoi garbia ere. Eta afirmatzen dugu ezen Jesusek juizio sintetikoak a priori egiten zituela, beraz, Jesusen baitan akto garbia da, zeren a prioritasunak ezagutza unibertsala erakusten baitu, a prioritasunak akto garbiaren baitan jartzen du gure begirakunea.

16.- Jakinduria.- Herenegun hartu nuen Biblia bat eta Jakinturiaren liburua irakurtzen hasi nintzen, liburu bat Salomonek idatzi omen zuena. Eta aurreratu nintzen erdiraino edo gehiago eta erresumen bat egin nuen nire artean: zer da jakinturia?, Jainkoaren legea jarraitzea.

17.- Nire bidea.- Jesus ez zen etorri mundu honetarat bakea ezartzera, baizik eta ezpata, eta ezpata aho zorrotz horrekin nik bereizten ditut filosofiaren arlo diferenteak, eta erlijioan kontserbadorea naiz, baina etika katolikoaren luzapena den politikan progresista naiz, hartu daitezkeen bide posibleetatik (asko dira) hori delako biderik nobleena. Hainbat puntutan Maritain filosofo katoliko frantsesarekin bat nator; filosofo katoliko espainolak, ostera, ez ditut gustuko faxismora (arrazakeriaren eskandalua) lerratzen direlako usuenean. Adibidez, bizitzaren defentsa bai, baina integrala, bestela fruitu ustelak ematen ditu.

*Roman Garmendia*